

# *Fontes Linguae Vasconum: 50 urte.* Ekarpen berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

Santazilia, E.; Krajewska, D.; Zuloaga, E. & Ariztimuño, B. (arg.)  
Nafarroako Gobernua. Iruñea: 2020, 609 or.  
ISBN: 978-84-235-3561-3

DUHALDE, Maitena  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

## 1. Liburuaren testuingurua: FLV, 50 urte biltzarra

Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 50. urtemugaren kariatara, *FLV, 50 urte. Metodo eta joera berriak (euskal) hizkuntzalaritzan* izenburuko nazioarteko biltzarra egin zen 2019ko martxoaren 6an eta 7an, Iruñean, Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Gazteria Sailaren egoitzan. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak antolatu kongresu honen helburua euskalaritzan hainbat adarretan diharduten euskalarien elkartzea izan zen eta euskalaritza esparruan ikerketa-jarduna aberasteko lagungarri izan daitezkeen ikerketak eta ikerketa-ildoak azalaraztea. Honela, bi egun hauetan 150 lagun elkartu ziren, orotara 35 erakunde eta unibertsitatekoak.

Biltzar horri loturik, Ekaitz Santaziliak, Dorota Krajewskak, Eneko Zu-  
loagak eta Borja Ariztimuñok *Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen  
berriak euskararen ikerketari / Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca*  
liburua argitaratu dute 2020an, non biltzarrean parte hartu zuten ikertzai-

*Euskera*. 2020, 65, 2. 661-667. Bilbo  
ISSN 0210-1564

leek beren ikerketen berri eman ahal izan duten. Biltzar horretan aurkeztu ziren lanen sorta zabala aurkezten du, eta liburuaren argitaratzaileek aitzin-solasean bertan zehazten dute helburua (12):

Liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatu-  
ra-ikerketan zertan den erakutsi nahi du, *Fontes Linguae Vasconum*  
aldizkariaren gorazarre. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belau-  
naldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialek-  
tologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hiz-  
kuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura,  
onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

## 2. Liburuaren edukia: deskripzioa ekarpenez

Liburuan, lan horien egileen deituren arabera antolatuta dira; hemen, ordea, edukien ikuspegi orokorra emateko, gaika edo esparruka aipatuko ditugu.

Euskal Filologiari eta testuen azterketari dagokienez, Estarronak, Etxe-berriak, Etxeparek, Padilla-Moyanok eta Soraluek corpus-hizkuntzalaritza-  
ren esparrua landu dute “Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus  
historikoa eraikitzen” izeneko lanean. Zehazki, *Basque in the Making* proiektu-  
an dihardute, XV.-XVIII. mendeen arteko euskalki guztietako idazki  
esanguratsuenen corpus digital etiketatua sortzen eta osatzen. Bertze alde  
batetik, Uribe-Etxebarriak Debagoieneko lau testu ditu aztergai “XIX. men-  
deko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak”  
saioan. Tradizioz “Oñatiko eskuizkribuak” deitu izan diren testuen eta An-  
tzuolako (1825) zein Gatzagako (1862) dotrinen iturriak eta egiletza-gaiak  
ditu aipagai. Filologiaren eta testuen azterketaren esparruko hirugarren  
lana Camus Bergarechek eta Gómez Seibanez sinatutako “Lenguas y socio-  
lingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX: testimonios del  
Archivo Zavala” da. Lan filologikoaz eta soziolinguistika historikoak azken  
urteotan bultzatutako ikuspegiez baliatuta, Zavala artxiboan gordetzen di-  
ren gutuneriaren egiletza-gaiak eta profil soziolinguistikoak aztertu dituzte.

Onomastikaren esparruan, Bañalesek eta Gorrotxategik euskararen men-  
debaleko muga dute aztergai “Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga”

lanean. Herrien izenak ikertu ondotik, populazio-guneei interesatu dira, hots, XVI. mendean populatuta zeuden guneei. González de Viñasprek, berriz, “El corónimo navarro *Salazar* / *Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble denominación” lanean, Nafarroako harana eta ibaia izendatzen dituzten *Zaraitzu* eta *Salazar* izenen etimologia aztertu du. Honela, koronimoaren Erdi Aroko lekukotasunak dakartza eta *Salazar* aldaeraren agerpenak zein testuinguruak zehazten ditu. Bertze alde batetik, Martínez Areta “Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak” artikulua sinatu du. Fernández Palaciosek (2011) dakartzan toponimoak aurkeztu eta agerraldien eta hauen gibelean dauden antroponimoak aztertu ditu, toponimoak multzoka sailkatzeko eta testuinguru historikoa ikertzeko beharra nabarmenduz. Azkenik, Zalduak toponimia du aipagai “Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran *-(iz)amo* duten leku-izenak” saioan. Honela, hiru multzo aztertu ditu bukaeran *-amo* eta *-izamo(n)* dutenak eta *-amo-* luketenak.

Gramatikaren teoria arloan, Adurizen eta Arriolaren “Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka” lana daukagu, hizkuntzalaritza konputazionalaren ikuspegitik. Lan honetan, corpusen etiketatzea eta desanbiguzio morfosintaktikoa landu dituzte. Bertze alde batetik, Elordietak “Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen” lanean, asimetria prosodikoa erakusten duen Lekeitioko hizkera du aztergai. Azentuaren ezarpena aztertu du, testuinguru sintaktikoei begiraturaz; hots, bien arteko harremana ikertzen duten teorioren bidetik. Ormazabalek, berriz, “Euskararen postposizioak” izeneko lana sinatu du. Euskal deklinabidearen ohiko sailkapena eztabaidatu du eta postposizio konplexuak eta atzizki lokatiboak kategoria bereko postposizio-multzo irekia osatzen dutela proposatu du. Tokizakik, “Externalization and morphosyntactic parameters in Basque” izeneko lanean, euskararen ezaugarri morfosintaktikoak aztertu ditu, gramatika sortzailea eta *minimalist program* teorioren ildotik. Azkenik, Vela-Plok euskarazko konparazio-egiturak aztertu ditu, “Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak” izeneko lanean. Zehazki, agerian mendeko perpausik ez daukaten azpikonparazioak ikertu ditu, analisi sintaktikoa eta semantikoa proposaturaz.

Euskal literatura garaikideari dagokionez, Alberrok eta Bijuescak “Bertsolaritzaren genealogia subalternoak” saiakera sinatu dute. Bertsolaritzaren ge-

neologia subalternoak dituzte aipagai eta hiru ardatz nagusi jorratzen dituzte: lehenik, hizkuntza eta kultura; bigarrenik, literatura eta, azkenik, generoa. Bertze alde batetik, Ayerbe Sudupek kritika genetikoa landu du “Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat” lanean. Lan honetan sorkuntza-prozesua ikertzeko eskuizkribuen azterketaren garrantzia azpimarratu du. Elizalde Estenagak, berriz, zentsura-ikasketak eta memoria-ikasketak ditu aztergai “Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan” lanean. Alde batetik, nazioarteko zentsuraren gaineko teoria berrien ekarpenak euskal eremura aplikatu beharra, eta, bertzetik, memoria-ikasketetan zentsura-ikasketei eskaini behar zaien lekua azpimarratu ditu. Euskal literatura garaikidearen esparruko laugarren lana Ibarluzea Santistebanek sinaturiko “Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz” da. Itzulpenaren soziologiaren ikuspegia aintzat harturik, euskal literatura itzuliaren historiografia bateratua osatzeko gakoak proposatu ditu. Bertze alde batetik, Madinak Eñaut Etxamendiren obra literarioa du hizpide “Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari” lanean. Bertan, Etxamendiren obra etnokritika literarioaren ikuspuntutik aztertu du, eta euskal erruralitatearen poetikari egiten dion ekarpena azpimarratu du. Manterola Agirrezabalagak, berriz, “Erdaretarako literatura itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko muga lau-soa” lana dakar. Euskarazko bertsioaz gain gaztelaniazko (auto)itzulpena ere eskura baita maiz, hirugarren hizkuntzetarako itzulpenetan testu-iturria hautatzeko faktoreak eta bakoitzari eskaintzen zaion inportantzia aztertu du. Azkenik, Olaziregik sinaturiko “Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz” lana dugu. Literatura kritikak eta literaturaren teoriaren ekarpenak laburbildu ondotik, azken urteetako euskal literaturaren hainbat ikerketa-lerroren diagnostikoa eskaini du.

Ahozko hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, Diaz de Gereñu Lasagak, Idiazabal Gorrotxategik eta Larringan Aranzabalek “Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan” lana sinatu dute. Ahozko euskararen irakaskuntzaren erronken berri eman ondotik, testu-generoa landu dute, eta honen erabilerarako proposamen didaktikoak dakartzate. Bertze alde batetik, Ezeizaren eta Encinaren “Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta” lana daukagu. Alde batetik, beren esperien-

tziak, eta, bertzetik, eginiko ikerketak aintzat harturik, ahozketasuna ikuspegi dialektikotik lantzeko proposamena egin dute. Garcia-Azkoagak, Bengoetxeak eta Zabalak irakasleen prestakuntza dute aipagai “Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako” lanean. Lan honetan, irakasleen prestakuntza egokitu baten diseinatzeko helburuarekin, irakas-saio grabatuaren analitik abiaturaz, aintzat hartu beharreko gakoak proposatu dituzte. Lascanok, berriz, “Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord” lana sinatu du. Irakaskuntza elebiduneko beharrei erantzuteko, Ipar Euskal Herrian martxan jarri den irakasleei zuzenduriko euskarazko formakuntza trinkoa aurkezteaz gain, irakasle profil berri honen inguruko hausnarketa aurkeztu du. Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza esparruko bosgarren lana, Manterolaren “Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?” dugu. Lan honetan ahozko euskararen irakaskuntza eta bereziki irakasleen prestakuntza landu dira, berrikuntza didaktikoaren zein sozialaren beharra azpimarratuz. Bertze alde batetik, Murciano Eizaguirrek eta Ozaeta Elortzak “Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea” lana sinatu dute. Lan honetan, Lehen Hezkuntzako irakasleen autokonfrontazio-egoeran ekoizturiko solasaldiak aztertu dira, eta ikaskuntza-irakaskuntzari buruz irakasleek azpimarratu estrategiak, zailtasunak zein erronkak ikertu dira. Azkenik, Olçomendyk eskuliburuak ditu hizpide “Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean” lanean. *Kolegioko ikastresna* programa ofizialei egokitzen ote den aztertu da, eta, batez ere, zein garrantzi eskaintzen zaion ahozko hizkuntzaren lantzeko baliabideei.

Hizkuntzaren soziologiaren esparruan, hizkuntza-mudaren prozesua dute aztergai Amorrortuk, Ortegak eta Goirigolzarrik “Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten behin-behineko emaitzak” lanean. Unibertsitate-eremuko euskararen erabilera sustatu ahal izateko, muda-prozesuan erabakigarriak diren faktoreak zein hizkuntza-ohiturak aldatzeko estrategiak identifikatu dira. Bertze alde batetik, Beitiak hizkuntza-sozializazioa lantzen du “Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko pilota-elkarrete batean” lanean. Euskararen sozializaziorako beharrezkoak diren baldintzen inguruko hausnarketa egin da. Hizkuntzaren soziologiaren esparruko

hirugarren lana Bereziartua Etxeberriak eta Muguruza Aseginolazak sinatutako “Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa” da. Hiztunak solaskideari zuka edo hika egiteko irizpideak azaltzeaz gain, hizkuntza-mudarekin parekotasunik badagoen aztertu da. Kasaresek, berriz, “Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización lingüística” lana dakar. Lan honetan, familia euskaldunaren definitzeko oinarri teorikoak aurkeztu dira, hizkuntza-sozializazioaren ikuspegitik.

Tipologiaren esparruan Creisselsek eta Mounolek aditz psikologikoak dituzte aztergai “Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie” lanean. Aditz psikologikoen balentzien aldaketa aurkeztu ondotik, horien ezaugarriak aztertu dituzte, tipologiaren ikuspegitik, eta, azkenik, ezaugarri horien bilakaera diakronikoa azaldu dute. Igartuak euskararen ezaugarri tipologikoak ditu hizpide “Basque among the world’s languages: a typological approach” lanean. Azken ikerketa-lanak aintzat harturik, euskararen posizio tipologikoa aztertu du munduko hizkuntzen artean, eta euskararen ezaugarri fonologiko, morfologiko zein sintaktiko nagusiak agerian eman ditu. Bertze alde batetik, Pastorrek izen-aditz ratioa du aipagai “Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean” lanean. Lan honetan, bi corpus idatziren bitartez, SOA eta SAO hitz-ordena duten hizkuntzak konparatu dira, hots, euskara eta gaztelania. Tipologia alorreko laugarren ekarpena Salaberriren “Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study” lana da. Lan honetan, izen berezi eta izen arrunten berezitasunak konparatu dira, genetikoki eta tipologikoki ahaidetasunik ez duten berrogeita hamar hizkuntza aintzat hartuz.

Dialektologiaren eta soziolinguistikaren esparruan, hizkuntza-aldakortasun diafasikoa du aztergai Artzelus Muxikak “Garaziko euskararen azterketa diafasikoa” lanean. Lan honetan, estilo formalean ahoskerari emaniko garrantzia zein Iparraldeko Batuaren eragina azpimarratu ditu.

Hizkuntzalaritza historikoaren esparruan, Campbellek “Lingüística Histórica: estado actual” lana dakar. Esparru honen bizitasuna eta azken urteetako ekarpenak azpimarratzen ditu. Hainbat alorren garapena agerian eman du, bertzeen artean, hizkuntza familien kopurua, urruneko ahaidetasunaren hipotesia, hizkuntza eremuen definitzeko zailtasunak, hizkuntza eta geneen

arteko korrelazioa. Bertze alde batetik, Gorrochateguik “*Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia del Euskara” lana sinatu du. Azken hamarkadetan euskarari buruzko ikerketetan egin ekarpenen eta aitzinamenduen berri dakar, euskararen historiaren zein hizkuntzalaritza konparatuaren ikuspegitik. Hizkuntzalaritza historikoaren esparruko hirugarren lana Monfortek sinatutako “Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*” da. Lakarraren (2019) partikulen azterketa diakronikoaren ildotik, ekialdeko euskalkietan dagoen *omen* / *ote* partikulen mikroaldakortasuna aztertu du, eta hauen garapena erabat gramatikalizatu baino lehen gertatu dela proposatu du.

### 3. Liburuari buruzko iritzi kritikoa

Kalitate handiko lanak bildu dituen liburu honek euskal ikasketen aniztasuna eta bizitasuna erakusten du. Alde batetik, ikerlarien profila askotarikoa da, eskarmentu handiko ikertzaileek zein gazteagoek beren ikerketen berri eman baitute. Gainera, atzerriko ikerlari zenbaitek ere parte hartu dute, euskarari buruzko ikerketak nazioartean daukan interesa berretsiz. Argitalpen gehienak euskaraz idatziak badira ere, bertze hizkuntzen presentzia azpimarratzekoa da. Zehazki, bi lan frantsesez idatzi dira, bortz gazteleraz eta lau ingelesez. Bertze alde batetik, ikerketa-ildoen aniztasuna ere nabarmentzekoa da. Nazioartean erabili ohi diren metodologiak eta teoriak gure eremura ekartzeko eta aplikatzeko beharra azpimarratu dute ikertzaileek. Esparruei doakieenez, ikuspegi zabala dakar liburuak; izan ere, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika lantzen dituzten artikuluak baititugu. Hala ere, ahulezia batzuk sumatu ditugu, dialektologian eta soziolinguistikan lan bakarrak baititugu eta fonetika-fonologiaren esparruari dedikaturiko lanak eskas baititugu liburuan.

Laburbilduz, aitzinsolasean zehaztu helburuak bete ditu *Fontes Linguae Vasconum: 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari* / *Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca* liburuak, euskal hizkuntzalaritzari zein literaturari buruzko gaur egungo ikerketen ikuspegi zabala eta aberatsa eskaini baitu.